

HERRIALDE
HITZALDIA



BERREGITURAKETA
PONENTZIA

BIZKAIA - BERREGITURAKETA

Idazkaritza Nazionalaren berregituraketa-Txostenak eragindako gogoetaldiaren ostean, eta ez hargatik eguneroko beharrei eraginkorki erantzuteari utzi, une egokia dela, uste dugu, Bizkaian sindikatoaren egoera aztertzeke, herrialdeko eskualde guztiek eskatitu zuten bezala, eta, ondorioz, halako Txostenean markatutako helburuei jarraituz, egiturak eta funtzionamendua berregokitu Bloketik eman zigun funtzioa betetzeko.

LABen ekarpenean, alderdi politiko-sindikal eta eraketazkoan bide berriak eskatuko dizkigun prozesu irekiak(kontaktuak-Negoiazioa-Fase berria), berak duen garapenerako garrantzia handia hartzen dute ondoko alderdi hauek:

- **Borroka ideologikoa lantokien markoan**

Haren protagonismoa Masa-Borrokan

- **Haren lankidetzak bilbapen ekonomikoaren berregituraketarako proiektuaren laborazioan, garapenean eta definizioan eta halaber, lan-harremanen testuinguruan parte hartzen duten instituzioen izaerarenean.**

Testuinguru honetan garrantzi handia hartzen du militanteak(koadroak) trebatu eta sendartzeko xedeak, Sindikatuaren oraingo eta geroko hedapenak hala eskatzen bait du.

LABen militantea(koadroa) honela definitzen da: "Bloketik irtendako ekimenak ulertu, ekarpenak egin eta praktikan garatzeko funtzioa duela", hola ba, gure ustez, aipatutako militanteok(koadroak), beraien koherentzia eta Erakundearen alde guztietan duten presentziaz, dira oraingo atazak artez garatzea eta etorkizunei bermez heltzea bide eman ahal digutenak.

Kontutan hartu behar da, gure definizioaren alderdi politikoak(**sozio-politiko**a funtsezko papera duela, beharrezkoak direlako, batetik, lantokietan gure analisisak eta helburu politikoak sartzea eta bestetik, **ENAM**en helburuak bere interesekin bat datozela uler deza lortzea.

Bestalde, **ENAM** buru duen gizarte-aldaketarako proiektu globalak eskatzen duen beharrak eta gure presentzia sektore ekonomiko guztietara hedatzeak, LABen diskurtsoa langile-klase osora hedatzea behartzen gaitu.

Egitura berriaren beharrik aurrikusteari ekin orduko, beharrezko deritzagu Herrialdearen egituren funtzionamendua azaletik(eskualdeek honetaz badutelako zer esanik) aztertzeari, ondoko terminoez mugatzen dugularik:

- Sindikatuaren hazkunde kuantitatiboa orain arte klasikotzat jo diren eta esku hartzen izan genuetan, eta Administrazio publikoaren menpekotasun ezarri.

- Eraketa beharrak gero eta gehiago, benetan erantzuteko hala sindikal nola politikoki.

- Egituren eta aparatuen funtzionamendua.

Bizkaian LABek izan duen hazkunde zenbakarriak (afiliatu-ordezkarriak), ekarri dizkigun kontraesan eta funtzionamendu errakuntzekin, bai eraketa arloan eta bai Administrazio Publikoaren menpe dauden sektoreen problematika (lurraldetasuna mantendu) beraien berezitasunagatik eta lurralde-egituretatik erakutsitako ez-gaitasunagatik, hartarako bitartekoak eta mekanismoak egokitzean batez ere, behartu egiten gaitu premiaz zuzentzera.

Gaur egun, kojuntura sozio-politikoak berak, prozesuaren zuzendaritzan garatzea dagokigun paperari bermez ekiteko, eskatzen digun izugarritzko ahaleginak, zuzentzera garamatza nahitanahiez, Herrialdearen aparato eta egitura bakoitza definituz, erantzunkizunak eskatuz guzti guztion funtzionamenduaz eta eginbeharrez, nola baita liberatuenak ere.

EGITURA FUNTZIONAMENDU-ERRAKUNTZAK, ORO HAR HONELA LABUR BIL GENITZAKE:

- Herrialdearen dinamizatzaileak izanik, sindikatuaren beharrei egoki eta une guztietan erantzuteko ez-gaitasuna: hala ataza ugari izateagatik, zelan, batzutan, zabartasuna.

- Lehenagoko funtzionamendu-ohitura okerrak, ez eta Blokearen kontraesanak gainditzeko gauza oraindik ez izana, egun ere gure artean dirautelarik.

- Askotan erakutsitako erantzunkizun militante eza, norbere kontraesanak gainditzeko ez jakinez, sindikatuaren interesen gaintik ipiniz.

- Lehentasun militanteak argi ez konkretatua, honela, sarri askotan jarrera argi eta garbi profesionalak edo sektorialak, LABen izaeratik urrun, ekarri direlarik.

"Azaleko azterketa" honen ondoren, egitura berriak, oraingoxe bitartekoekin abiatuz (gure ahalbideen muga izan gabe) planteiatzen zaizkigun beharrak aurrikusi behar ditu:

- KASEk eskatzen duen homogenotasunetik, trebaketa eta eskuharmen politikoa ahalbidetzea.

- Trebakuntza politiko-sindikala bultzatu.

- Erabakiak bizkortasunez hartzea, erabakietan eskuharmena eta erantzun kizuna bultzatuz.

- Herrialdearen Bilera, Idazkaritza eta Iraunkorrari edukia, bizkortasuna eta erabaki-gaitasuna ematearen garrantzia eta beharra agertu.

- Herrialde eta eskualde egituretan Teknikoen parteharmena definitzea.

Hemen goian azaldutako beharrei erantzuteko, ondoko egitura eta bete behar diren funtzioak proposatzen da:

HERRIALDE IDAZKARITZA: Sindikatuaren zuzendaritza organoa herrialdean eta halaber eztabaida eta erabakietarako organo nagusia.

KONPOSAKETA: Eskualde koordinatzaileka, Iraunkorra eta Liberatuak (Idazkaritza Nazionalekoak kanpo direlarik, Herrialde Koordinatzailea ezik, elkarren espazioak ordezkatzeko, Nazional-Herrialdekoa)

- Aldi baterako, Administrazio publikoko sektoreen arduradunak, geldi geldika

Eskualde Idazkaritzetan behin betiko integratzera joz.

- Eskualde arduradunak eskualdeetan hautatu behar dira, Idazkaritzak dinamizatu eta Herrialde Idazkaritzak, zuzendaritza organoa den aldetik, ekin behar diren gai guztietan ekarpenak egin eta garatzeko gaitasunaren arabera.

- Herrialdeko Idazkaritzari dagokion papera eta protagonismoa emateko xedez, neurri zuzentzaileetariko bat lirateke informazio sozio-politikoaren igarotzeko bizkortasuna eta jartotasuna, hura zuzendaritza organoetatik datorrenean, hots, informazioari dagokionean, orain dagoen jaso-funtzionamendu ia bakarra apurtuko litzateke, gaur egun Herrialde Idazkaritzaren ezaugarri dena, Iraunkorrak berehala igaro eraziz eskualdeetara eta liberatuei informazio guztia, eskualdeetako egiturek eztabaidatu, ekarpenak egin eta kontrastatzerik izan dezaten, eskualde koordinatzailearen bitartez Herrialde Idazkaritzaren markoan, honela "desfaserik gerta ez dadin informazioan, marko haren aldiko koordinatzaile dinamikak sortuak, edo hobeto esanda, larrituak.

- Herrialde Idazkaritzaren protagonismoa bultzatu, bilera prestakuntza, eztabaida-gai, planteiatzeko eztabaida, etabarrerako metodo hertsiaz, zein Iraunkorreko funtzio konkretutzat gauzatu beharko duen.

- Bilerak hamabostero izango dira, alde aurretik eta behar besteko aurretiaz eguneko gai-zerrenda eta Herrialde Idazkaritzak ekin behar diren gaiak esarri, aurretiaz gutxienez Eskualde Idazkaritzetan eztabaidatuak izan behar dutelarik.

- Herrialde Idazkaritzaren ekarpenak ez lirateke eguneko gai zerrendaz mugatuko (N.I. koetaz), zabalgo politikodun gaietara era bai baino, berezko Nazional espazioaren iraizpena ekidinez.


HELBURUAK

Herrialde Idazkaritzak Idazkaritza Nazionalerako ekarpen-elementu egin, batez ere alde politikoetan, eta ez "postari" lan hutsetan.

- Iraunkorraren eztabaida-monopolioa hautsi.

- Sindikatu osoaren barruan behar "biziagoa" ahalbidetu.

FUNTZIONAMENDU-METODOA. - Nazional mailan proposaturiko sistema litzateke:



IRAUNKORRA.- Herrialde Idazkaritzaren erabakien organo beterezlea, eta erabakitzailea gai puntual premiazkoetan.

FUNTZIOAK: - Iraunkorrek berak banatuko ditu funtzioak eta ardurak bere partaideen artean.

- Modu bizkorrez bideratu informazioa Eskualde Idazkaritzengana eta haien partaide ez diren liberatuengana.

- Herrialdeko Idazkaritzan oratuko diren gaiak aztertu eta prestatu.

- Herrialdera oro eta Herrialde Idazkaritza dinamizatu, erritmoa eman, eta bereziki, eraketako aparato ezberdinei jarraipena eginez.

- Sindikatuaren parteharmen eta informazio politikoa sendotu, beheargoko egiturekin lotura estuan.

- Herrialderako dedikazio hertsiz, LABen ikuspegi orokorrerako eta sindikatua sendatu eta geroago berrabiarazteko: Hezketa, Eskabide Ekintza, ezinbesteko garrantziadun funtzioak bereganatu.

FUNTZIONAMENDUA.- Iraunkorra asterokoa izango litzateke eta zubi informatibo arintzat erabiliko litzateke, Eskualde Idazkaritzei eta liberatuei begira, gero H.I. eta I.N.en bidez bideratu edo bideratu ahal izateko ekarpenak egitea erraz dadin.

KONPOSAKETA.- Herrialdearen Eraketa Arduraduna(I.N.eko partaide), Eskabide Ekintza Arduraduna, Heziketa Arduraduna, 5 militante(ez-liberatuak), zuzendaritza, ekarpen eta dinamizatzeko gaitasunaren arabera hautatuak, hala H.I.eko lanak garatzeko, zelan eskualdeetara informazioa zuzen transmititzeko.

- H.I.ean eta transmisio informatiboari dagozkion alderdiak baino ez heltzeko, N.I. eta I.N.arena, bertan izango dira I.N.eko partaideak(H.I.koak ez direnak), argi geratuz ez direla Herrialdearen beraren dinamikari dagozkion alderdiak tratatzen hasiko.

ESKABIDE EKINTZA.- Herrialdeko arduraduna Iraunkorreko partaide izango da, eta beraren funtzioa globalizatzailea, aurrerago gertatu ziren funtzionamendu eta dinamika errakuntzak egitea ekidinez, kontutan harturik agertzen diren gai guzti guztien ardura hartu beharko duten Eskualdeko Eskabide Ekintza taldeen garrantzia, argi geratuz Herrialde arduradunarekin Eskualdea bera gainditzen duten gaiez informatzeko baino ez direla, eta ekiteko mekanismoak jarriko dira martxan, alde zuzenetik, kasuan kasuari dagokion egituraren erabakiz.

- Esk.Ekintzaren arduradunak eta Iraunkorrek behingoan eratuko dute Herrialde Esk.Ekintzaren funtzionamendurako lan-plangintza, eta aldi berean Eskualde Idazkaritzek gauza berdina egingo dute Eskualdeetako Esk.Ekintza taldeen funtzionamenduari dagokionean.

HEZKETA: - Herrialde Arduraduna H.I.eko partaide izango da eta ondoko funtzioak bete behar ditu:

- Hezketarako lanak eta ikastaroak prestatu eta eman(ez berak bakarrik), eskualde arduradunekin kontaktu zuzenean I.N.etik eratzen diren plangintzei eta

artezbideei jarraiki eta eskualdearen beraren beharren arabera, egiturena eta Herrialde-arena baita.

- Lan taldea eratuko du eskualde arduradunekin, beharren planifikazioak eta berauen burupena zuzenean bermatzeko xedez, honetarako, berehala eratuko dute funtzionamendu eta lehentasunen plangintza.

DIRUZANTZA.- Arduraduna Aholkularitzako idazkari lanak egiten duen bera izango da, sarrera-gastuak(minutak,kuotak...) kontrol zuzena bermatzea helburu, ondoko funtzio hauek beteko dituelarik:

Herrialde Diruzantzaren funtzionamenduaren zuzeneko ardura hartu, arduradun Nazional eta eskualdekoekiko koordinazio iraunkorrean.

- Herrialdean sindikatuaren azpiegitura, bitartekoak eta behar materialen kontrolaz eta jarraipenaz arduratuko da.

- Eskualde arduradunekin batera maila honetan Herrialdearen egoerazko lan zehaztu, erreal eta osoa eratuko du, eta halaber konpontze-beharrez eta bidez eta finantziabidez, dagozkion egoera-balantzeak egiteaz gain, hilero, sei hilabetero eta urtero Eraketa Arduradunaren ezagutzapean ipini beharko duelarik, dagozkion egituretara eramateko, Nazional mailan erabakitzen denari ezer kendu gabe.

PROPAGANDA.- Militante arduradunak bere esku hartuko du Herrialde, Eskualde eta Sektore mailan egiten den propaganda guztia kontrolatu eta bermatzea.

- Eskualde arduradunekin batera, propagandaren hedapena, eraketa eta funtzionamendu zuzena bermatu eta koordinatuko duen "talde" eraginkorra sortuko du.

- "Taldeak", behingoan, maila guztietan egiten den propagandari buruzko lan zehaztu eta osoa egingo du, nola baita hura egiteko, banatzeko eta eraginkorra izan dadin, beharrezko bitartekoak ere.

- Eskualde arduradunen koordinazioaz eta jarraipenaz arduratuko da.

- Etengabe kontaktuan egongo da Nazional arduradunarekin, I.N.etik markatzen diren ildoen arabera aparatu honek garatu behar dituen atazak transmititu, dinamizatu eta egokitze.

EKONOMIA.- Militante arduradunak, Nazional mailan erabakitzen direnez gain, ondoko funtzio hauek beteko ditu:

- Gai ekonomikoen jarraipena, koordinazioa eta tratamendua, honek ez duela esan nahi konpontzeko, lantokietara joan behar denik(salbuespenak salbuespen).

- Berehala eratuko du iharduerez eta lantokietan eskatu behar diren datuezko lan zehaztua, eguneroko egoera ekonomikoaren jarraipena egin eta benetako ezagutza lortu ahal izateko.

- "Miliotante-taldea" eratuko du(ez derrigor profesionalak) sortzen diren arazoei egokiro erantzuteko.

- Etengabe kontaktuan egongo da Herrialde Esk.Ekintzekin, Aholkulariekin eta Hezketakoekin.

Etorkizunaz eta joera ekonomikoez estu estudioak egin, agindu edo lekutzen arduratuko da, dagozkion egituren bidez Herrialde guztira tramitituko direlarik.

AHOLKULARITZA.- Militante liberatuek osaturiko taldea da, Esk.Ekintza egituratik, hala eskualdekoa nola herrialdekoa, eta gure herrialdeari dagokionean sektorekoa (Administrarritza Publikoa orokorki), lan istiluei ekiteko unean aurkitzen ditugun mota juridiko-teknikoko atazak egiteko funtzioarekin.

Organikoki "lan-taldea" da, ez ordezkabiderik ez ordezkazaririk duela, beraien atazei datzeknienak eta erakundeak berak eman diezaieken lan bereziak ezik.

Ematen zaien ardura bereziak egiteko betebeharrak bi dute(edozein liberatuei eskatuz gain), tekniko-profesional eta eraketa motakoak.

Aholkularitzako "lan-taldea" 6 militantek osatuko dute, beratuetariko 4 aholkularitza juridikoko funtzioak beteko dituzte, beste bat ekonomia arduraduna izango da eta seigarrenak idazkaritza eta Herrialde Diruzantzako funtzioak beteko ditu, ezer kendu gabe, erakundearen eritziz beraiek bete behar dituztelako bestelako atazei.

Honetarako, aholkularitza "taldea" H.I.ren menpe dago, berarekin kontaktoan jartzeko bide arrunta Herrialdeko Eraketa Arduraduna delarik, beronek transmitituko bait ditu haien ardurekin zerikusirik duten arazo guztiak, hala bait datzekie H.I. edo eta H.Idazkaritzan planteaturiko atazei, halako arazoei buruz ebatzi dadin.

ERAKETA LIBERATUAK.- Sindikatutik eta Bloketik irtendako ekimenak ulertu, ekarpenak egin eta praktikan garatzeko funtzioan betetzen duten LABeko militanteak dira. Era berean Eskualdeak antolatu, egituren funtzionamendua dinamizatu, sindikatuko partaideen eskuhartzea bideratu, sindikatotik irtendako manuak eta atazak zuzen garatu eta erakundeak esleituriko unean uneko atazak gauzatu.

Ildo honetan, gogorarazi, liberatuak LABenak baina ez direna, ez besterik, sindikatora ez bestera dedikaturik, eta erakundea bera izango dela edozein momentutan haietariko bakoitzak egin behar dituen lanak eta funtzioak adieraziko duena, eta halaber beraiek bete behar duen postua ere.

Sindikatuaren berregituraketan eta garatzeko beharren funtzioan, H.I.k berehala eratuko du lan bat, zeinek, Herrialdearen beharrak kontutan izanik, mugatuko dituen herrialdeko eraketa-liberatu guzti guztiek garatu behar dituzten ataza konkretuak.

HERRIALDEKO ERAKETA ARDURADUNA: Arduraduna B.N.ean hautatua eta I.N.eko partaide da, bete behar dituen funtzioak dira:

I.N.ekiko koordinazioa eta H.I. eta H.Idazkaritzaren dinamizatzailea.

Eskualdeak koordinatu eta dinamizatu, H.I.eko partaideekin eta eraketa-liberatuarekin batera.

Liberatuek eta H.I. eta H.Idazkaritzako partaideek egin behar dituzten atazen jarraipena eta koordinaketaz arduratuko da.

Berak exijituko dizkie, lehenengo batetan, erantzunkizunak lurralde egitura eta aparatuen arduradun guzti guztiei, akatsak, errakuntzak eta axolagabekeriak organo egokiei: H.Idaz., H.I., I.N., transmitituz.

Ataz hauetaz gain, erakundeak unean unerako beharrezko eritzi diezaiekeenak ere egingo ditu.

ESKUALDE IDAZKARITZAK:

Herrialde berregituratzeaz batera Eskualdeenari ere heldu behar diogu. Nazional zein herrialde mailan markaturiko erizpide tea helburuetan oinarrituz, honetarako, hona henem kontutan hartzeko erizpide ardatz batzu:

Eskualde Idazkaritza sindikatuaren zuzendaritza organoa da eskualdean. Geureganatu egin behar dugu Eskualde Idazkaritzak sindikatuaren funtzionamendu onerako duen garrantzia, bere hesparruan ez ezik Herrialdearenean eta ondorioz Nazional mailan ere. Katemaila hau apurtuz gero katea guztiak huts egiten du.

Eskualdetik ez badu ondo funtzionatzen |eskabide Ekintzak herrialde-egitura lar zamatu egiten da, eta aholkularitza baita, gainez eginik "egunik egun"eko atazek, gaur dugun behinenekin: **Hezketa sozio-politiko, militanteak(koadroak) antolatu eta prestatu**, sindikatuaren beraren atazei erantzuteaz gain, azken hauteskundeetatik askoz ere handiagoa.

Eskualdeetatik martxan ipintzen ez ba dira kooordinazioa, hezketa, diruzantza, propaganda, afiliazioak egunero funtzionatzeko mekanismoak eragina eta txarra du maila guztietako egituretan.

Eskualde Idazkaritzak eztabaida oldartzen ez badu, hezketa programak burutzen ez baditu eta ganorazko afiliazio-kontrola egin, noizbait barne kontraesan larriekin gerta gaitzek, eta berauek aurrera egitea eragotziko digute, afiliatu eta ordezkariak batzarreak erabat hutsaldurik.

Gauza gehiago ere esan daiteke, baina esandakoarekin, gaintetik, organo honen garrantzia ikus daiteke, nola baita haren ardura hartzen duten militanteek bereganatu behar duten konpromesua ere.

Gernikako B.N.ean (Ekainak-88) markaturiko lehentasunei erantzuteko, bertan ez bait zen besterik egin LABi erakundea indartu eta ardura konkretodun ataza eta arlo begiratzeko asmoz denboran zeharreko iraunkortasun izaera ematea baino, ondoko eredu hau proposatzen da:

KONPOSAKETA ETA BETEBEHARRAK

LIBERATUA.- Dagoenean, eskualde guztiak eraketa-liberatuez zainduak izan beharko diren arren.

Egin behar diren ataza nagusiak:

Eskualdeak Eratzea

Eskabide Ekintzaren arduradun

Eskualde Idazkaritzaren arlo guztien koordinatzaile

Herrialde egituratik adierazten zaizkion bilera guztietara joatea.

Eskualde(eta)ko indar politiko-sindikalen arteko bileretan sindikatua ordezkatzeta.

ESKABIDE EKINTZA.- Talde bat eratuko da, gutxienez arduradun bat, liberatuaz gain izendatuko dutelarik, eta bete beharrezko ataza nagusiak izango dira:

Jarraipen eta koordinaketa liberatuarekin, ez badago istiluei dagokienean arduradun zuzena:

Lantokietara joatea, aholkularitzan alde zurretiko kontsultak egiteko iragazia.

Kontsultak pasatuko ditu aholkulariarekin.

Entrepresa esanguratsuenetako delegatuekin "taldea" eratuko du, eskualde istiluetan aurrikusi, aztertu eta orientabide sindikalak emateko xedez.

Egiten diren Herrialde Esk.Ekintza bileretara joango da.

Sortu eta egunean eduki Esk.Ekintza artxibo, gutxienez zerak edukiko dituelarik:

Entrepresen zerrenda eta egoera, gehien erabiltzen diren Herrialde-Hitzarmenak, eta eskualdean beharrezkoak direnak baita, Legeak, Epaitzak, Legeria liburuak...

DIRUZANTZA.- Arduradunak ondoko gai hauek zehatz mehatz egunean edukitzeko:

KUOTAK, helbideratzeko joera bultzatuz afiliatu guztien artean, diru guztia Herrialdeari emanez, Herrialde Diruzantzak adierazten duen egunean.

Hilero, hiruhilabetero eta urteroko balantzeak egin

Eskualdearekiko gorabeheren ordainketak eta kobraketak; papera, bulego-gaiak, errezihoak...

Herrialde mailako bileretara eta gai honi buruzkoetara joatea.

Afiliazio artxiboa.

Egunean eduki eskualdean sindikatuak dituen ondasunen zerrenda.

PROPAGANDA.-Aparatu hau aurrekoari loturik joan daiteke, eta beraren ataza nagusiak lirateke:

Herrialdearekin koordinatzea, propaganda eskualdeko bazter guztietara garaiz hel dadin.

Kanpainetako lana antolatu eta banatu.

Kanpainak planifikatu eta antolatu, eskualdeari dagozkion gertaera edo gauzetan, ahal dela talde batekin.

Artxiboa eratu eta mantendu, blokeak eta sindikatuak argitaraturiko guztiarekin.

Bitarteko materialak(moldeak, izkiak, errotulagailuak, pinturak, ehunak...) eskuratzea sor litekeen edozein lan mota egiteko.

HEZKETA.- Arduradun zuzena, liberatuarekin loturik, baldin badago, LABen beraren egitarauak eta oro har blokearenak aurrera eramateko bitartekoak ipini edo lortuz.

Eskualderako ikastaro interesgarriak prestatu eta antolatu.

Deitzen diren herrialde bileretara joan.

Hezketarako gai interesgarri guztiekin artxibo-liburutegia eratu eta mantendu.

Eskualdean hezketa-taldea eratu.

HERRIETAKO ORDEZKARIAK. - Bertako LABek eratuta daudenetan, arduradunek Eskualde Idazkaritzetan parte hartuko dute, eta beraien zeregina, lehendabiziko fasean, bertako erakundea sendatzea eta T.K.etan parte hartzea litzateke, behin egitura finkatutakoan, herriari begira sindikatuaren arloetarako lan-egitasmoak egingo dira.

Sindikatuaren ordezkoa izango da herrian egiten diren indar arteko bileretan. Eskualdearekiko koordinatzaile izango da.


SEKTOREEN ORDEZKARIAK. - Eskualde Idazkaritzetan eta kojunturalcki, Irakaskuntza, Osakidetza, Administrarritza sektore bakoitzeko ordezkari banak parte hartzera joko da.

Haien ataza nagusia zera izango da: sektoreko informazioa lurralde-egitura rekin koordinatzea, beraien problematiken delegatuen eta lurralde-egituretako afiliatuen(delegatu-Afiliatuen bilerak...) integrazio osorako dinamika abiaraziz.

Beharrezko ikusten da haien presentzia momentu honetan, "sektore berriak" (berauei buruz ezer gutxi ezagutzen dugularik) eta sektore klasikoak kontaktuan egoteari darraiakkeen aberasketagatik. Haren afiliatuak esperientzia sindikala bizitzen hasteaz gain, iharduera ekonomiko eta politikoaren adar guztiak globalizatuz.

BIZKAIA - ERAKETA ARDURADUNAK

ARDURAPEAN HARTZEKO ESKUALDEAK



Egin beharreko ataza nagusiak

Eskualdeak antolatzea

Eskabide Ekintzaren arduraduna(eskualdeko arduradunetik aparte)

Eskualde Idazkaritzako arlo guztien koordinatzaile eta dinamizatzaile.

Herrialde egituratik agintzen zaizkion bilera guztietara joango da.

Indar politiko-sindikalen arteko bilera guztietan eskualdearen ordezkari izango da, ezinean eskualdekoak egingo diolarik ordezkoa.

Herrialdetik agintzen zaizkion ataza guztiak egiteko betebeharra izango du.

Beharturik dago Eskualde Idazkaritzetan parte hartzera(lehentasunen arau, zehatz adierazi beharko da, planteiatzen den eskualde banaketa kontutan harturik).

Nahitanahiez Herrialde Idazkaritzetan parte hartuko du.